



Arte eta Kultura Industrien
enpresa-konfiantza adierazleak

Indicadores de confianza empresarial
de las Artes e Industrias Culturales

2020ko emaitzak eta 2021erako aukerak
Resultados del 2020 y perspectivas para el 2021

2021eko iraila / Septiembre de 2021



Aurkibidea

Sarrera	3.
Metodologia	4.
Kontsulta panela	4.
Denbora-eremua	4.
Datu-bilketa aldia	4.
Adierazleen kalkulua	5.
Emaitzak	6.
Fakturazioaren bilakaera	6.
Egoera	8.
Aurreikuspenak	11.
EKA eta EKAA	14.
Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak	17.
Giza baliabideak	19.
Covid-19 pandemiaren eragina	20.

Índice

Introducción	3.
Metodología	4.
Panel de consulta	4.
Ámbito temporal	4.
Período de recogida de datos	4.
Cálculo de indicadores.....	5.
Resultados	6.
Evolución de la facturación	6.
Situación.....	8.
Expectativas	11.
ICE e ICEA	14.
Factores limitadores de la actividad	17.
Recursos humanos.....	19.
Efecto de la pandemia por Covid-19	20.

Sarrera

Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB-OVC) Arte eta Kultura Industrien sektoreko Enpresa-Konfiantza Adierazleen inguruan (EKA) egindako zazpigarren estatistikari dagokion txostena da hau. Estatistika honen helburu nagusia, maiztasun jakin batekin Arte eta Kultura Industriek negozioaren egungo egoeraz eta epe laburrerako aurreikuspenez dituzten pertzepzioak ezagutzeko da. Orain arte estatistika honetan erreferentzia modura erabili izan den denbora tartea sei hilekoa bazen ere, zazpigarren edizio honetatik aurrera estatistika urtean behingoa izatera pasako da, eta beraz, erreferentzia aldia urte osoa izango da. Modu honetara datuetan estacionalizazioak duen eragina (hau da, kontsulta egiten den urte garaian dagokion eragina) murriztuko da.

Edizio honetan ere, panelaren aurreneko ediziorako osatutako enpresa kolaboratzaileen panel bera izan da abiapuntua. Panel horren bitartez jasotako datuekin, kultura sektore ezberdinen egoera eta aurreikuspen adierazleak kalkulatu dira. Ondorengo sektoreak hartu dira kontuan panela osatzerako garaian: Arte eszenikoak, Liburugintza, Musika, Ikusizko arteak eta Ikus-entzunezkoak.

Adierazleen kalkulurako metodologia, Estatistikako Institutu Nazionalak enpresa konfiantza neurtzeko erabiltzen duen bera da. Adierazle horiez gain, giza baliabideen inguruko informazioa ere biltzen da: enpresan lan egiten duen pertsona kopurua eta enpresan ardua duten pertsona kopuruaz galdetu zaie; beti ere, emakumezko eta gizonezkoen arteko bereizketa eginez.

Covid-19ak eragindako pandemiak Arte eta Kultura Industrietako enpresei nola eragin dien ere aztertu nahi izan da zazpigarren edizio honetan. Hori dela eta, aurreko edizioko galderez gain Covid-19ak nola eragin dien ezagutzeko galdera berriak sartu dira, baita pandemiaren aurrean enpresek hartutako neurrien ingurukoak ere.

Introducción

Este es el informe de la séptima estadística de Indicadores de Confianza Empresarial de las Artes e Industrias Culturales (en adelante, ICE) realizada por el Observatorio Vasco de la Cultura (KEB-OVC). El objetivo principal de esta estadística es conocer con cierta frecuencia las percepciones que los establecimientos de las Artes e Industrias Culturales tienen en torno a la situación actual del negocio y sobre las expectativas a corto plazo.

Hasta ahora el periodo de referencia utilizado en esta estadística era semestral. A partir de esta séptima edición la estadística pasará a ser anual, por lo que el periodo de referencia será de todo el año. De este modo se reducirá el impacto de la estacionalización en los datos (es decir, el impacto correspondiente a la época del año en que se realiza la consulta).

Para esta edición se ha vuelto a consultar al panel de establecimientos colaboradores conformado para la primera edición del panel, y a través de los datos obtenidos mediante ese panel de consulta, se han calculado los indicadores ICE de los diferentes subsectores culturales: Artes escénicas, Libro, Música, Artes visuales y Audiovisual.

La metodología aplicada, corresponde a la que utiliza el Instituto Nacional de Estadística para el cálculo de indicadores de confianza empresarial. Además de esos indicadores también se recopila información relativa al personal que trabaja en los establecimientos: el número de personas que trabaja en la empresa, y el número de personas que ocupa cargos de responsabilidad en la toma de decisiones, diferenciando entre mujeres y hombres.

En esta séptima edición también se ha querido analizar cómo ha afectado la pandemia provocada por Covid-19 a las empresas de las Artes e Industrias Culturales. Por ello, se han añadido nuevas preguntas sobre cómo les ha afectado el Covid-19, así como sobre las medidas adoptadas por las empresas ante la pandemia.

Metodologia

Kontsulta panela

Panelaren lehen ediziorako osatutako 70 enpresen lagin adierazgarritik abiatu gara; panel hori ondorengo aukeraketa irizpideei jarraiki osatu zen: sektorea eta enpresaren tipologia, fakturazioa eta lurraldea. Estatistikaren zazpigarren edizio honetan, guztira 68 enpresen informazioa bildu da. Aurreko edizioetan bezala, informazio biketarako lanak Siadeco enpresak egin ditu.

Kultura sektorea	Establezimenduak
Arte eszenikoak	13
Ikus-entzunezkoak	12
Ikusizko arteak	6
Liburugintza	18
Musika	19
Guztira	68

Metodología


Panel de consulta

Se ha partido de la muestra estratégica de la primera edición del panel compuesta por 70 establecimientos. Dicha muestra se configuró utilizando estos criterios de selección: sector y tipología de empresa, facturación y territorio. En la presente edición de la estadística en total se ha recabado información de 68 empresas. Como en las pasadas ediciones, la recogida de datos lo ha desarrollado la empresa Siadeco.

Sector cultural	Establecimientos
Artes escénicas	13
Audiovisual	12
Artes visuales	6
Libro	18
Música	19
Total	68

Paneleko parte hartzaile kopuruaren bilakaera estatistikaren edizio ezberdinetan:

Evolución de participantes del panel en distintas ediciones de la estadística:



Denbora eremua

Zazpigarren kontsulta honetako adierazleak, 2020. urteko emaitzei eta 2021. urteko aurreikuspenei dagozkie.

Ámbito temporal

Los indicadores de esta séptima consulta corresponden a los resultados del 2020 y a las expectativas para el 2021.

Datu bilketa aldia

Edizio honetako datu bilketa 2021eko martxoaren 16an hasi zen eta 2021eko maiatzaren 10ean amaitu zen.

Periodo de recogida de datos

La recogida de datos de esta edición empezó el 16 de marzo de 2021 y finalizó el 10 de mayo de 2021.

Adierazleen kalkulua

Adierazle bakoitzaren saldoa

Erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea da.

Egoera balantzea

Negoziaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Amaitu berri den aldiari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da (orain arteko edizioetan amaitu berri zen seihilekoaz galdetzen zen; edizio honetatik aurrera amaitu berri den urteaz galdetuko da).

Aurreikuspenen balantzea

Negoziaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Hasi berri den aldiari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da (orain arteko edizioetan hasi berri zen seihilekoaz galdetzen zen; edizio honetatik aurrera hasi berri den urteaz galdetuko da).

Enpresa-Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

Negoziaren emaitza ekonomikoaz galdetuta lortutako emaitzetan oinarrituta kalkulatzen dira. EKA egoera saldoa eta aurreikuspenen saldoaren batez besteko geometrikoa da, emaitzak normalizatuta.

EKAtik abiatuta EKAA kalkulatzeko, oinarritzat 2015eko lehen seihilekoa hartzen da.

Kalkuluaren xehetasunak ondorengoak dira:

Enpresa-Konfiantza =

$$= EKA = \sqrt{(Egoera + 200) \times (Aurreikuspenak + 200)} - 200$$

Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua =

$$= EKAA = \frac{EKA+200}{EKA1Seihil2015+200} \times 100$$

Cálculo de indicadores

Saldo de cada variable

Se calcula como la diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el porcentaje de respuestas desfavorables.

Balance de Situación

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables. En las ediciones de hasta ahora se preguntaba por el semestre que acababa de finalizar; a partir de esta edición se preguntará por el año que acaba de finalizar.

Balance de Expectativas

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables. En las ediciones de hasta ahora se preguntaba por el semestre que acababa de empezar; a partir de esta edición se preguntará por el año que acaba de empezar.

Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

Se construyen a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. El ICE es la media geométrica del saldo de situación y del de expectativas, normalizando adecuadamente los resultados.

Partiendo del ICE el ICEA se calcula cogiendo como período base el primer semestre de 2015.

Los detalles del cálculo son los siguientes:

Confianza empresarial =

$$= ICE = \sqrt{(Situación + 200) \times (Expectativas + 200)} - 200$$

Índice de Confianza empresarial armonizado =

$$= ICEA = \frac{ICE+200}{ICE1Sem2015+200} \times 100$$

Emaizak

Negozioaren fakturazioaren bilakaera

Negozioaren fakturazioaren bilakaerak aurreko urtearekiko alderaketa kontuan izanda, emaitza negatiboa eman du.

2020an eta aurreko urtearekin alderatuta, 2019 urtearekin, Arte eta Kultura Industrietako enpresen fakturazioaren bilakaera saldoa ia -63 puntukoa da. Hau da, beren negozioaren fakturazioa jaitsi egin dela adierazi duten enpresak fakturazioa igo egin dela esan dutenak baino gehiago izan dira; zehazki, establezimenduen % 75ek fakturazioa aurreko urtearekiko jaitsi egin dela adierazi du eta % 12 izan da igo egin dela esan dutenak.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen modura negozioaren fakturazioaren bilakaerak inoizko balio negatiboa izan du kontsultaren edizio honetan. Datu negatibo edo ezkor hori Covid-19aren pandemiak Arte eta Kultur Industrietako enpresetan izan duen eragin handiaren adierazle dela esan daiteke.

Batez ere zuzeneko ikuskizunekin zerikusia duten sektoreak izan dira fakturazioaren bilakaera negatiboa izan dutenak, hau da, musikaren sektorea eta arte eszenikoena (-95 eta -77 punturekin, hurrenez hurren). Bi sektore horietan aurreko urtearekiko fakturazioa jaitsi egin dela adierazi dute 10 enpresetatik 8k baino gehiagok. Liburugintzan ere fakturazioaren bilakaera ezkorra izan da (-67 puntuko saldoa du sektore honek), eta baita Ikus-entzunezkoetan ere (-25 puntuko saldoa). Fakturazioak igoera izan duen enpresen portzentaia % 25ekoa edo altuagoa da Ikus-entzunezkoen sektorean eta Ikusizko arteetan. Azken honetan bilakaeraren saldoa 0 puntukoa da (fakturazioa igo egin dela eta jaitsi egin dela adierazi duten enpresen ehunekoak berdinak baitira).

Fakturazioaren batz besteko jaitsiera guztira % 39koa izan da; jaitsiera altuagoa izan da Arte eszenikoetan, Musikan eta Ikusizko arteetan. Batz besteko igoera ere % 39koa izan da.

Resultados

Evolución de la facturación del negocio

La evolución de la facturación del negocio respecto al año anterior arroja un resultado negativo.

El saldo de la evolución de la facturación del 2020 y respecto al año anterior, el año 2019, de las empresas de las Artes e Industrias Culturales es de casi -63 puntos. Es decir, las empresas que han indicado que la facturación del negocio ha disminuido superan a las que han indicado que la facturación ha aumentado; el 75 % de las empresas ha señalado una disminución de la facturación respecto al año anterior, mientras que el 12 % un aumento.


Como se puede observar en el siguiente gráfico, la evolución de la facturación del negocio de esta edición ha sido el más negativo. Es decir, ese dato negativo o desfavorable es el reflejo de cómo ha afectado la pandemia del Covid-19 en las empresas de las Artes e Industrias Culturales.

Los sectores que han tenido una evolución de la facturación más negativa han sido los relacionados con las actuaciones en directo, es decir, los sectores de la Música y las Artes escénicas (con -95 y -77 puntos, respectivamente). En ambos casos más de 8 de cada 10 empresas han indicado que la facturación respecto al año anterior ha disminuido. En el sector del Libro la evolución de la facturación también ha sido desfavorable (tiene un saldo de -67 puntos), y también en los Audiovisuales (saldo de -25 puntos). El porcentaje de las empresas que han tenido un aumento en la facturación es del 25 % o superior en los sectores Audiovisuales y de las Artes visuales. En este último sector la evolución del saldo es de 0 puntos (ya que el porcentaje de empresas que han indicado que la facturación ha aumentado y los que han indicado que ha disminuido es el mismo).

El porcentaje de disminución de facturación media ha sido de 39 %; esta disminución ha sido especialmente relevante en el sector de Artes escénicas, Música y Artes visuales. El aumento medio también ha sido del 39 %.



Negoioaren fakturazioaren saldoaren bilakaera aurreko urtearekiko -
Evolución del saldo de facturación respecto año anterior



Erreferentzia aldia – Período de referencia: 2020

	Arte eszenikoak/ Artes escénicas	Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual	Ikusizko arteak/ Artes visuales	Liburugintza /Libro	Musika/ Música	Guztira/ Total
Igo egin da/Ha aumentado (%)	7,7	25,0	33,3	11,1	0,0	11,8
Mantendu egin da/Se ha mantenido (%)	0,0	16,7	33,3	11,1	5,3	10,3
Jaitsi egin da/Ha disminuido (%)	84,6	50,0	33,3	77,8	94,7	75,0
Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos)	-76,9	-25,0	0,0	-66,7	-94,7	-63,2

Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: 2020

	Arte eszenikoak/ Artes escénicas	Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual	Ikusizko arteak/ Artes visuales	Liburugintza /Libro	Musika/ Música	Guztira/ Total
Batez besteko igoera %/% de aumento medio	156,00	14,37	25,00	19,50	-	39,11
Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio	47,84	38,46	45,00	21,49	43,77	39,07

Egoera: amaitu den urtearen inguruko balorazioa

Arte eta Kultur Industrien paneleko emaitza ekonomikoen inguruko inoizko ikuspeirik negatiboena agertu dute enpresek edizio honetan. Azken edizioetako datuen goranzko joerarekin hautsi eta egoeraren ikuspegi negatiboa gailendu da 2020ko edizio honetan. 2020ko egoeraren saldoa -65 puntukoa da, hau da, 2020ko egoera ezkorra izan dela adierazi duten enpresen ehunekoa (% 72) egoera baikorra izan dela adierazi dutenen (% 7) oso gaintik kokatzen da. Kontuan izan behar da 2020. urtea bete betean harrapatu zuela Covid-19ak eragindako pandemiak, eta egoera horrek eragin zuzena izan du enpresen egoeran eta ondorioz balorazio honetan. Enpresen %21arentzat 2020ko egoera “normala” izan da.


Egoeraren balorazioa negatiboa da sektore guztietan. Musika sektorea eta Arte eszenikoen sektorea dira egoeraren baloraziorik negatiboena egiten duten sektoreak: -95 eta -85 puntuko saldoekin, hurrenez hurren. Aipagarria da bi sektore horietan ez dagoela egoera baikorra izan dela adierazi duen enpresarik. Liburugintzaren sektorea da hurrena, -56 puntuko saldoarekin; eta azkenik Ikusizko arteak eta Ikus-entzunezkoak (-33 eta -25 puntuko saldoekin, hurrenez hurren).


Situación: valoración empresarial del año saliente

En la presente edición la visión de las empresas sobre la situación ha sido la más negativa de todas las ediciones del panel de las Artes e Industrias Culturales. En esta edición de 2020 se ha roto la tendencia al alza de las últimas ediciones y ha destacado la visión negativa en cuanto a la situación. El saldo de la situación de 2020 es de -65 puntos, es decir, el porcentaje de empresas que han indicado que la situación de 2020 ha sido desfavorable (72 %) se sitúa por encima de los que indican que ha sido favorable (7 %). Hay que tener en cuenta la pandemia generada por el Covid-19 en el año 2020 y que dicha pandemia ha afectado de lleno a las empresas de artes e industrias culturales y en consecuencia a esta valoración. Para el 21 % de las empresas la situación ha sido “normal”.

La valoración de la situación es negativa en todos los sectores. Los sectores de la Música y las Artes escénicas son los que hacen una valoración más negativa: saldos de -95 y -85 puntos, respectivamente. Es llamativo que en esos dos sectores no haya ninguna empresa que haya indicado que la situación ha sido favorable. Después está el sector del Libro, con un saldo de -56 puntos; y por último Artes visuales y Audiovisuales (saldos de -33 y -25 puntos, respectivamente).

Egoera saldoa - Saldo de situación





Egoera balantzea – Balance de situación: 2020						
	Arte eszenikoak/ Artes escénicas	Ikus-entzunezkoak / Audiovisual	Ikusizko arteak/ Artes visuales	Liburugintza/ Libro	Musika/ Música	Guztira/ Total
Baikorra/Favorable (%)	0,0	25,0	16,7	5,6	0,0	7,4
Normala/Normal (%)	15,4	25,0	33,3	33,3	5,3	20,6
Ezkorra/Desfavorable (%)	84,6	50,0	50,0	61,1	94,7	72,1
Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos)	-84,6	-25,0	-33,3	-55,6	-94,7	-64,7
Saldoa/Saldo II/2018	90,9	27,3	33,3	-11,8	5,0	21,5
Saldoa/Saldo II/2016	50,0	41,7	-20,0	-11,8	-15,8	7,7
Saldoa/Saldo I/2016	15,4	36,4	-60,0	22,2	0,0	10,6
Saldoa/Saldo II/2015	-15,4	8,3	-16,7	50,0	-21,1	4,4
Saldoa/Saldo I/2015	7,7	0,0	20,0	11,8	-40,0	-6,1
Saldoa/Saldo II/2014	15,4	15,4	-33,3	11,1	-25,0	-1,4

Negoioan eragiten duten aldagai desberdinen bilakaeraren balorazioari dagokionean, *salmentetan izandako jaitsiera* da azpimarragarriena. Bai EAEko, Estatuko zein atzerriko salmentek 2020an jaitsiera altua pairatu dute. EAEko salmentak jaitsi direla adierazi du enpresen % 78ak; Estatuko salmentak jaitsi direla % 77ak eta atzerrikoak jaitsi direla % 72ak. Covid-19ak eragindako pandemiak azken edizioetako joerarekin hautsi duela ikus daiteke berriz ere, salmenten igoera (bereziki EAEkoena) gailendu izan baita panelaren azken edizioetan.


Enpleguak mantentzeko joera izan du kontsultaturiko enpresen gehiengoan (% 60). Enplegua jaitsi egin da enpresen % 33an eta igo % 8an.

En cuanto a la valoración de los principales factores que inciden en la marcha del negocio, hay que subrayar la *disminución de las ventas*. En el 2020 han sufrido una gran disminución las ventas de la CAE, del Estado y también del extranjero. El 78 % de las empresas ha indicado que las ventas han bajado en la CAE; el 77 % que han bajado a nivel estatal y el 72 % que han bajado las del extranjero. Se puede volver a observar que la pandemia generada por el Covid-19 ha roto con la tendencia de las últimas ediciones, ya que en las últimas ediciones destacaba el aumento de ventas (sobre todo las ventas a nivel de la CAE).

La mayoría de las empresas consultadas han tienden a mantener el *empleo* (60 %). En el 33 % de las empresas el empleo ha bajado y en el 8 % ha subido.

Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores (%)

■ Jaitsi egin da/Ha disminuido ■ Mantendu egin da/Se ha mantenido ■ Igo egin da/Ha aumentado



Aurreikuspenak: hasi den sei hilekoaren inguruko balorazioa

2021. urterako aurreikuspen saldoa negatiboa da Arte eta Kultur Industrien panelisten artean. Hau da, 2021erako espektatiba ezkorrek dituzten enpresak espektatiba baikorrak dituztenak baino gehiago dira. Zehazki saldo hori -18 puntukoa izan da panelaren zazpigarren edizio honetan. 2021 urterako aurreikuspen baikorrak dituzte enpresen % 19k eta ezkorrek % 37k. Aurreikuspen normalak dituztenak % 40 dira.

Egoerari buruzko balorazioarekin alderatuta aurreikuspenak, ezkorrek diren arren, zertxobait positiboagoak dira: zenbait enpresek Covid-19aren pandemiak eragindako krisialditik errekuaratzeko itxaropena dutenaren seinale dela esan daiteke.

Aurreikuspen saldoa aldakorra da sektore ezberdinetan. Berriz ere Arte eszenikoen eta Musikaren sektorea dira balorazio negatiboena egin dutenak: Arte eszenikoetan aurreikuspen saldoa -62 puntukoa da eta Musikan -42 puntukoa. Ikusizko arteetan ere ezkorrek dira aurreikuspenak, -17 puntuko saldoarekin.

Kontrara, Ikus-entzunezkoen eta Liburugintzaren sektoreak baikorrak dira 2021 urtearen balorazioari dagokionean. Bietan aurreikuspen baikorrak dituztenen ehunekoak ezkorrek dituztenen ehunekoari gailentzen zaio: Ikus-entzunezkoen sektorean 8 puntukoa da saldoa eta Liburugintzan 22 puntukoa.

Expectativas: valoración empresarial del semestre entrante


En cuanto a las expectativas o las previsiones para el año 2021 el saldo es negativo entre los panelistas de las Artes e Industrias Culturales. Es decir, el número de empresas con expectativas desfavorables es mayor que el número de empresas con expectativas favorables. Concretamente dicho saldo ha sido de -18 puntos en la presente edición. El 19 % de las empresas consultadas ha indicado que las expectativas son favorables y el 37 % que son desfavorables. El 40 % ha indicado que las expectativas son normales.


Aunque las previsiones, en comparación con la valoración sobre la situación, sean desfavorables, se puede decir que son algo más positivas. Se puede decir que es señal de que varias empresas tienen la esperanza de recuperarse de la crisis producida por la pandemia del Covid-19.

El saldo previsto es variable en los diferentes sectores. Otra vez los sectores de las Artes escénicas y la Música son los que han realizado una valoración más negativa: la previsión del saldo de las Artes escénicas es de -62 puntos y de la Música -42 puntos. Las previsiones de las Artes visuales también son desfavorables, con saldo de -17 puntos.

En cambio, en cuanto a la valoración del año 2021 los sectores de Audiovisuales y del Libro son más favorables. En ambos casos el porcentaje de previsiones favorables es mayor que las previsiones desfavorables: el saldo en el sector Audiovisual es de 8 puntos y en el del Libro de 22 puntos.

Aurreikuspen saldoa - Saldo de expectativas





Aurreikuspenen balantzea – Balance de expectativas: 2021

	Arte eszenikoak / Artes escénicas	Ikus- entzunezkoak/ Audiovisual	Ikusizko arteak/ Artes visuales	Liburugintza /Libro	Musika/ Música	Guztira/ Total
Baikorra/Favorable (%)	7,7	33,3	16,7	33,3	5,3	19,1
Normala/Normal (%)	15,4	33,3	33,3	55,6	47,4	39,7
Ezkorra/Desfavorable (%)	69,2	25,0	33,3	11,1	47,4	36,8
Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos)	-61,5	8,3	-16,7	22,2	-42,1	-17,6
Saldoa/Saldo I/2019	9,1	18,2	-33,3	-31,3	-10,0	-9,4
Saldoa/Saldo I/2017	-25,0	16,7	0,0	-5,9	-31,6	-12,3
Saldoa/Saldo II/2016	38,5	45,5	-20,0	33,3	15,8	27,3
Saldoa/Saldo I/2016	-23,1	-16,7	16,7	-5,6	-15,8	-11,8
Saldoa /Saldo II/2015	-15,4	36,4	0,0	-5,9	-15,0	-3,1
Saldoa /Saldo I/2015	0,0	30,8	0,0	-11,1	-35,0	-7,1

Enpresaren martxan eragiten duten aldagaien aurreikuspen bat egiteko eskatuta, EAEko salmentei dagokienean jarrera positiboa agertu dute Arte eta Kultur Industrietako panela osatzen duten enpresek. Enpresen % 37k EAE mailako salmentek gora egingo dutela uste dute 2021ean. Balorazioa ezkorragoa da Estatuko eta atzerriko salmentei dagokienean (% 18 eta % 6 izan dira salmenta horiek igotzea espero dutenak). Salmenten igoera aurreikusten duen enpresen ehunekoa inoizko altuena izan da. Kontuan izan behar da pandemia egoeran egonik ohikoak baino aurreikuspen hobek izatea normalizat jo daitekeela (egoera oso larri batetik baitatuz enpresa horiek).


Enpleguak mantentzera egitea espero du enpresen gehiengoak (hala adierazi du % 77ak). *Kostuak* ere mantendu egingo direla diotenak nagusitzen dira (% 65).

Al solicitar una previsión de variables que afectan al funcionamiento de la empresa, en cuanto a las *ventas de la CAE* las empresas han mostrado una actitud positiva. El 37 % de las empresas creen que las ventas de la CAE van a aumentar en el 2021. La valoración es más desfavorable en cuanto a las ventas a nivel estatal y al extranjero (los que esperan que aumenten esas ventas han sido el 18 y 6 %). El porcentaje de las empresas que prevé el aumento de las ventas es el valor más alto obtenido hasta ahora. Hay que tener en cuenta que debido a la situación de pandemia se puede normalizar que las previsiones sean mejores que las habituales (ya que esas empresas vienen de una situación muy crítica).

La mayoría de las empresas espera mantener el *empleo* (así lo ha indicado el 77 %). También se imponen los que indican que los *costes* también se van a mantener (65 %).

Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores (%)

■ Jaitsi egingo da/Disminuirá ■ Mantendu egingo da/Se mantendrá ■ Igo egingo da/Aumentará



Enpresa-Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

EAEko Arte eta Kultura Industrien 2020ko Enpresa-Konfiantza Adierazlea -43 puntukoa da. Berriz ere adierazlea balio negatiboetara itzuli da, inoizko baliorik negatiboena izanik gainera. EKA adierazlearen balioa negatiboa izatean eragina izan du enpresek egoeraz egin dituzten balorazio oso negatiboek.

Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatuaren balioa 80 puntukoa izan da 2020an. Adierazle honetan ere inoizko baliorik negatiboena lortu da panelaren edizio honetan. Adierazle guztietan nabaritzen da beraz 2020an hasitako Covid-19ak eragindako pandemiak zer nolako eragina izan duen Arte eta Kultur Industrietako enpresetan, eta panelaren azken edizioetan ikusitako datuen hobekuntzak nolako jaitziera bortitza izan duen edizio bakar batean.

EKA adierazlearen sektorekako azterketa eginda, ikus daiteke sektore guztietan balio negatiboak eskuratu diren arren, aldeak daudela sektorez sektore, aurrez aztertutako aldagaietan ikusi den modura: Arte eszenikoak eta Musika dira EKA adierazlearen baliorik negatiboena dituztenak (-74 eta -71, hurrenez hurren). Ondoren Ikusizko arteak eta Liburugintza daude (-25 eta -21 punturekin, hurrenez hurren); eta azkenik, Ikus-entzunezkoak -9 punturekin.

EKAA adierazlean ere joera beretsua da: Arte eszenikoen eta Musikaren sektoreak dituzte balio negatiboena (61 eta 76 puntu, hurrenez hurren). Kasu honetan ordea Ikusizko arteen balioa da altuena (96 punturekin).

Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

El Indicador de Confianza Empresarial del 2020 de las Artes e Industrias Culturales de la CAE es de -43 puntos. El indicador vuelve a tener valores negativos, y ha logrado el valor más negativo obtenido hasta ahora. Las valoraciones muy negativas realizadas por las empresas han influido en el valor negativo del indicador ICE.

El valor obtenido para el Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA) es de 80 puntos para el 2020. En esta edición del panel se ha obtenido el valor más negativo de hasta ahora en este indicador. Por lo tanto, se observa en todos los indicadores el efecto que ha tenido en las empresas de las Artes e Industrias Culturales la pandemia generada por el Covid-19 que empezó en el 2020, y la gran bajada que han tenido la mejora de los datos de las últimas ediciones de los paneles en una única edición.

Analizando los valores obtenidos para el indicador ICE en distintos sectores se observa que, aunque en todos los sectores se hayan obtenido valores negativos, hay diferencias entre unos y otros, como se ha observado en los indicadores previamente analizados: las Artes escénicas y la Música son los que tienen los valores más negativos en los indicadores ICE (-74 y -71, respectivamente). Después las Artes visuales y el del Libro (-25 y -21 puntos, respectivamente); y, por último, Audiovisuales (-9 puntos).


En el indicador ICEA la tendencia es parecida: los sectores de las Artes escénicas y de la Música tienen los valores más negativos (61 y 76 puntos, respectivamente). En este caso, en cambio, el valor más alto es el de las Artes visuales (96 puntos).

Enpresa Konfiantza – Confianza Empresarial: 2021						
	Arte eszenikoak / Artes escénicas	Ikus-entzunezkoak / Audiovisual	Ikusizko arteak / Artes visuales	Liburugintza / Libro	Musika / Música	Guztira / Total
Enpresa-Konfiantza Adierazlea (EKA) – Indicador Confianza Empresarial (ICE) ¹	-73,6	-9,1	-25,2	-20,8	-71,1	-42,9
Enpresa-Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA) – Indicador Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)	60,9	85,7	95,7	89,7	75,9	80,3

¹ EKA -100 eta 100 artekoa da: balio positiboek jardueran aurrerapenak adierazten dituzte eta balio negatiboek atzerapenak. El ICE varía entre -100 y 100: valores positivos indican avances, mientras que datos negativos señalan retrocesos de la actividad.




Empresa-Konfiantzaren bilakaera - Evolución de la Confianza Empresarial (2015/I - 2021)



Agente mota Tipo de agente	2015/I	2015/II	2016/I	2016/II	2018/II	2021			
	EKAA /ICEA	EKAA/ ICEA	EKAA/ ICEA	EKAA/ ICEA	EKAA/ ICEA	Egoera /Situación	Aurreikuspenak /Expectativas	EKA/ICE	EKAA/ICEA
Antzerkia-Teatro	89,0	85,1	108,5	97,3	112,8	-81,8	-54,5	-68,9	61,4
Dantza-Danza	129,1	100,0	111,8	122,5	173,2	-100,0	-100,0	-100,0	57,7
Arte eszenikoak-Artes escénicas	94,3	87,1	109,2	100,8	118,8	-84,6	-61,5	-73,6	60,9
Zinema-Cine	70,9	73,4	89,9	100,3	90,5	-50,0	-25,0	-38,0	65,1
Dokumentala-Documental	100,0	77,5	100,0	100,0	89,4	-50,0	50,0	-6,4	86,6
Publizitatea-Publicidad	81,6	100,0	100,0	57,7	81,6	-100,0	-100,0	-100,0	40,8
Telebista-Televisión	134,4	100,8	151,2	126,0	125,7	33,3	66,7	49,4	125,7
Especializatu gabeak-No especializ.	100,0	96,8	111,8	96,8	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Ikus-entzunezkoak-Audiovisual	97,5	87,7	108,0	102,6	99,9	-25,0	8,3	-9,1	85,6
Arte-galeria-Galería de arte	114,9	109,2	86,9	103,9	108,0	-33,3	-16,7	-25,2	95,7
Ikusizko arteak-Artes visuales	114,9	109,2	86,9	103,9	108,0	-33,3	-16,7	-25,2	95,7
Argitaletxea-Editorial	96,1	103,8	103,2	88,4	84,6	-33,3	16,7	-10,0	87,7
Liburu-denda-Librería	104,3	114,0	119,5	99,9	91,5	-66,7	25,0	-26,8	90,7
Liburugintza-Libro	101,5	110,4	114,0	95,7	89,3	-55,6	22,2	-20,8	89,7
Sustatzaile pribatua-Promotor privado	118,2	106,9	126,0	126,0	113,4	-100,0	-100,0	-100,0	50,4
Kontzertu aretoa-Sala de conciertos	94,9	115,5	121,1	94,3	115,5	-100,0	-100,0	-100,0	52,7
Diskoetxea-Discográfica	89,4	105,4	118,6	98,6	120,2	-80,0	0,0	-45,1	81,6
Disko saltokia-Comercio del disco	106,9	100,0	125,4	100,0	113,4	-100,0	0,0	-58,6	121,2
Musika-Música	101,2	106,8	122,3	103,7	116,1	-94,7	-42,1	-71,1	75,9
Guztira - Total	99,9	100,2	111,8	100,9	105,0	-64,7	-17,6	-42,9	80,3

**Enpresa-Konfinatza Adierazle Armonizatuen bilakaera -
Evolución de la Confianza Empresarial Armonizado (2015/II - 2021)**



Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreen artean, eskariaren jaitsiera izan da faktorerik seinalatuena edizio honetan. Arte eta Kultura Industrien enpresa establezimenduetako arduradunen % 43k faktore horri egotzi dio negozioak izan duen bilakaera. Kontuan izan behar da Covid-19aren pandemiak eragin zuzena duela faktore horretan, kultur arloko hainbat emanaldi, kontzertu, ikuskizun, etab. bertan behera gelditu baitziren pandemiaren eraginez.

Bestelako faktoreen garrantzia asko jaisten da: *ekoizpen gastuak* adierazi dituzte arduradunen % 11k, *finantziario/tesoreria arazoak* % 8k eta *gastu fiskalak* % 7k.

Edizio honetan bereziki altua da enpresa jardueran *bestelako faktoreek* eragin dutela adierazi dutenen ehunekoa: % 31.

Bestelako horiek zehazteko eskatuta gehiengoak faktore baldintzatzaile modura Covid-19ak eragindako pandemia adierazi du. Arte eszenikoa eta Musikaren kasuan kultur aretoen itxierak emanaldiak bertan behera utzi beharra ekarri duela aipatzen da; aforo murrizketek ere kalte handiak eragin dizkiola sektoreari ere aipatzen da. Herrietako jairik ez ospatzeak ere negozioaren ohiko jardueran eragin negatiboa izan duela aipatu duenik ere bada.

Salmentara bideratutako negozioek establezimenduen itxierak eragin dizkieten kalteak aipatu dituzte atal honetan (liburu-dendek, disko salmentako establezimenduek, arte galeriek).

Ikus-entzunezkoetan pandemia egoerak sortzen duen ziurgabetasunak kalte handiak eragiten dituela aipatzen dute.

Factores limitadores de la actividad empresarial

Entre los distintos factores que inciden en la actividad empresarial, el descenso de la demanda es el factor que más se ha señalado en esta edición. El 43% de los responsables de los establecimientos de las Artes e Industrias Culturales han señalado ese factor como responsable de la evolución del negocio. Hay que tener en cuenta que la pandemia del Covid-19 tiene un efecto directo en ese factor, ya que muchas actuaciones culturales, conciertos, espectáculos etc. se suspendieron por ello.

La importancia de otros factores desciende mucho: el 11 % de los responsables han señalado los *costes de producción*, el 8 % *problemas de financiación/tesorería* y el 7 % *gastos fiscales*.

En esta edición es especialmente alto el porcentaje de los que indican que *otros factores* han influido en la actividad empresarial (31 %).


Al solicitar la especificación de esos otros factores condicionantes, la mayoría ha indicado la pandemia generada por el Covid-19. En el caso de las Artes escénicas y la Música se indica que el cierre de las salas culturales les ha obligado a suspender las actuaciones; también que la reducción del aforo ha generado grandes daños al sector. Hay quien señala que no celebrar las fiestas patronales ha tenido una influencia negativa en la actividad habitual del negocio.

En este apartado los negocios dirigidos a la venta indican los daños que les han causado el cierre de los establecimientos (librerías, establecimientos de venta de discos, galerías de arte).

Indican que la incertidumbre que genera la situación de pandemia también ha sido un factor limitador.



Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak -
Factores limitadores de la actividad empresarial



Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak -
Factores que limitan la actividad empresarial 2020

	Arte eszenikoak/ Artes escénicas	Ikus-entzunezko/ Audiovisual	Ikusizko arteak/ Artes visuales	Liburugintza Libro	Musika Música	Guztira Total
Ekoizpen gastuak/Costes de producción (%)	16,7	25,0	0,0	14,8	0,0	10,8
Eskariaren jaitsiera/Descenso de la demanda (%)	58,3	30,0	36,4	44,4	42,1	43,3
Finantziazio/tesorería arazoak Insuficiente financiación/tesorería (%)	0,0	5,0	18,2	11,1	10,5	8,3
Gastu fiskalak/Costes fiscales (%)	0,0	20,0	18,2	3,7	2,6	6,7
Bestelakoak/Otros (%)	25,0	20,0	27,3	25,9	44,7	30,8


Giza baliabideak

Arte eta Kultura Industrietako establezimenduetan guztira 766 lanpostu daude eta erdia baino gehiago emakumezkoak dira (% 54). Ardura postuak dituzten langileak 165 dira, eta postu horietan emakumeen presentzia baxuagoa da (% 45).


Recursos humanos

Según la información recopilada, hay 766 puestos de trabajo en los establecimientos que conforman el panel de las Artes e Industrias Culturales, y más de la mitad son mujeres (54 %). El número de personas que ocupa cargos de responsabilidad es de 165, y el porcentaje de mujeres es menor: 45 %.

Enpresako langile kopurua -
Personal de la empresa



Ardura postuak dituzten langile kopurua -
Personal con cargos de responsabilidad



- Emakumezkoak / Mujeres
- Gizonezkoak / Hombres
- Ez binarioa / No binario

Langile kopurua guztira eta ardura postuak dituzten langile kopurua -
Personal total y personal con cargos de responsabilidad 2020

		Arte eszenikoak/ Artes escénicas		Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual		Ikusizko arteak Artes visuales		Liburugintza Libro		Musika Música		Guztira Total	
		Kop./ Cant.	%	Kop./ Cant.	%	Kop./ Cant.	%	Kop./ Cant.	%	Kop./ Cant.	%	Kop./ Cant.	%
Enpresako langileak/ Personal empresa	Em./Muj.	41	55,4	52	34,0	6	42,3	241	65,3	74	46,8	413	54,0
	Giz./Hom.	32	43,3	100	66,0	8	57,7	128	34,7	84	53,2	352	45,9
	Ez-binarioa/No binarioa	1	1,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	0,1
	Guztira/Total	74	100,0	151	100,0	13	100,0	369	100,0	158	100,0	766	100,0
Ardura postuak/ Cargos responsab es	Em./Muj.	17	51,5	11	34,4	7	61,9	32	60,4	7	19,4	74	44,7
	Giz./Hom.	15	45,5	21	65,6	4	38,1	21	39,6	29	80,6	90	54,7
	Ez-binarioa/No binarioa	1	3,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	0,6
	Guztira/Total	33	100,0	32	100,0	11	100,0	53	100,0	36	100,0	165	100,0

Arte eszenikoak eta Liburugintza sektoreetan langileen artean altuagoa da emakumeen presentzia gizonetara baino (% 55 eta % 65, hurrenez hurren).

Ardura postuei dagokienean berriz, Arte eszenikoetan, Liburugintzan eta Ikusizko arteetan altuagoa da ardura postuak dituzten emakumeen portzentajea gizonetara baino (% 52, % 60 eta % 62, hurrenez hurren).

Ikus-entzunezkoetan eta Musikan ardura postuak dituzten langileen artean gizonetara gailentzen dira (% 66 eta % 81).

Artes escénicas y Libro son los sectores en los que el porcentaje de mujeres en el personal de la empresa supera al de los hombres (55 %, y 65 %, respectivamente).

En cuanto a cargos responsables, en Artes Visuales, Libro y Artes visuales el porcentaje de mujeres con cargos responsables es mayor que el de los hombres (52 %, 60 % y 62 %, respectivamente).

En el sector de Audiovisuales y Música prevalecen los hombres entre los cargos responsables (66 % y 81 %).

Covid-19ak eragindako pandemiaren eragina

Txostenaren hasieran aipatzen den moduan, Arte eta Kultur Industrien panelaren azken edizio honetan Covid-19aren pandemiaren eraginaren inguruko galderak txertatu dira.

Pandemiaren aurrean enpresaren egoera hobekien islatzen duen faktoreaz galdetuta enpresen erdiak (% 50) *negozioaren funtzionamendua unean uneko egoerek eskaintzen dituzten aukeretara egokitu dutela* adierazi du.

% 35ak *funtzionamendu-maila normala edo nahiko normala mantendu dutela* adierazi du.

% 8k *gutxieneko funtzionamendu-maila mantendu duela* adierazi du, murrizketak aldakorrek izan arren, egoera normalizatu arte itxaron dutelarik.

% 5 izan da *negozioa itxi behar izan dutenak edo laster itxi beharra* aurreikusten dutenak.

Eta azkenik % 3k *negozio-eredua aldatu edo zabaldu behar izan dute pandemiaren eraginez*, zerbitzu, produktu edo formatu berriak eskainiz.

Efecto de la pandemia por Covid-19

Como se menciona al principio del documento, en esta última edición del panel de Artes e Industrias Culturales se han introducido preguntas relacionadas con la pandemia generada por el Covid-19.

Preguntando sobre el factor que mejor refleja la situación de la empresa ante la pandemia, la mitad (50%) indica que *han adaptado el funcionamiento del negocio a las posibilidades que ofrecen las circunstancias en cada momento*.


El 35 % indica que *han mantenido un nivel de funcionamiento normal o bastante normal*.

El 8 % indica que *han mantenido un nivel mínimo de funcionamiento*, ya que han esperado hasta que la situación se normalice, a pesar de las restricciones cambiantes.

El 5 % *ha tenido que cerrar el negocio o prevé tener que cerrarlo próximamente*.

Por último, el 3 % *ha tenido que cambiar o ampliar el modelo de negocio* debido a la pandemia, ofreciendo nuevos servicios, productos o formatos.

Covid-19ak eragindako pandemiaren aurreko egoera
Situación ante la pandemia por Covid-19 (%)



Arte eta Kultur sektoreka aztertuta datu horiek zera ikus daiteke:

- Arte eszenikoetan, Musikan eta Ikusizko arteetan *negozioaren funtzionamendua unean uneko egoerak eskaintzen dituzten aukeretara egokitzea* izan dela ohikoena (enpresen % 54k, % 68k eta % 83k eman du erantzun hori).
- Ikus-entzunezkoen eta liburugintzaren kasuan *funtzionamendu-maila normala edo nahiko normala mantendu dutenak* gailentzen dira (% 60 eta % 56, hurrenez hurren).
- *Negozioa itxi behar izan dutela edo itxi behar izatea aurreikusten dutenak* Liburugintzaren eta Musikaren sektoreko enpresak dira (% 11 eta % 5, hurrenez hurren).
- Eta *negozio-eredua aldatu edo zabaldu dutenak* Arte eszenikoetakoak (% 8) eta Liburugintza sektorekoak (% 6).

Analizando los datos por sector de Arte y Cultura, se observa lo siguiente:

- En las Artes escénicas, Música y Artes visuales lo habitual ha sido adaptar el funcionamiento del negocio a las posibilidades que se ofrecen en cada momento (el 54 %, 68 % y 83 % de las empresas opinan así).
- En el caso de los Audiovisuales y Libro, destacan los que mantienen un nivel de funcionamiento normal o bastante normal (60 % y 56 %, respectivamente).
- Las empresas que han tenido que cerrar el negocio o que prevén que lo tendrán que cerrar son del sector del Libro y la Música (11 % y 5 %, respectivamente).
- Y los que han tenido que cambiar o expandir el modelo de negocio son de los sectores de las Artes escénicas (8 %) y el Libro (6 %).

	Covid-19ak eragindako pandemiaren aurreko egoera Situación ante la pandemia por Covid-19					
	Arte eszenikoak/ Artes escénicas	Ikus-entzunezko/ Audiovisual	Ikusizko arteak/ Artes visuales	Liburugintza Libro	Musika Música	Guztira Total
Funtzionamendu-maila normala edo nahiko normala mantendu dut, pandemiaren baldintzak gorabehera./ He mantenido un nivel de funcionamiento normal o bastante normal a pesar de las condiciones de la pandemia (%)	23,1	60,0	0,0	55,6	21,1	34,8
Murrizketak aldakorrak izan arren, egoera normalizatu arte itxarotzea erabaki dut nire jarduera garatzeko, gutxieneko funtzionamendu-maila mantenduz./ A pesar de las restricciones cambiantes, he decidido esperar a que se normalice la situación para desarrollar mi actividad manteniendo un nivel mínimo de funcionamiento (%)	15,4	0,0	16,7	5,6	5,3	7,6
Negozioaren funtzionamendua unean uneko egoerek eskaintzen dituzten aukeretara egokitu dut./ He adaptado el funcionamiento del negocio a las posibilidades que ofrecen las circunstancias en cada momento (%)	53,8	40,0	83,3	22,2	68,4	50,0
Negozio-eredua aldatu edo zabaldu dut zerbitzu, produktu edo formatu berrieekin / He cambiado o ampliado el modelo de negocio con nuevos servicios, productos o formatos (%).	7,7	0,0	0,0	5,6	0,0	3,0
Negozioa itxi behar izan dut edo laster itxi behar izatea aurreikusten dut. / He tenido que cerrar el negocio o preveo tener que hacerlo próximamente (%)	0,0	0,0	0,0	11,1	5,3	4,5

Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurriez galdetuta, dagoeneko hartu dituzten neurrien artean *presentzia eta komunikazio digitala hobetzea* izan da zabalduena edo enpresek gehien egin dutena (kontsultatutako enpresen % 74k pandemiari aurre egiteko neurri modura presentzia digitala hobetu duela adierazi du). Etorkizunean hartu beharreko neurriez galdetuta ere neurri hori da enpresek gehien aipatu dutena (% 74) eta baita iraganean hartu beharreko neurri modura gehien adierazi dena ere (% 52). Adierazitako neurriak modu iraunkorrean edo momentuko neurri modura hartu diren ere galdetu da panelaren kontsulta honetan. Badirudi presentzia digitalaren hobekuntza neurri iraunkor modura ikusten dela eta ez soilik pandemiari aurre egiteko unean uneko neurri bezala: enpresen % 81ak neurri hori modu iraunkorrean hartu duela adierazi du.

Pandemiari aurre egiteko hartutako bigarren neurri ohikoena *zerbitzuak, produktuak edo formatuak egokitzea* izan da: enpresen % 68k egokitu dituzte eta etorkizunean ere egokitu beharra ikusten dute (% 72). Gainera, neurri hau ere modu iraunkorrean mantentzea aurreikusten du gehiengoak (% 71).

Lan-prozesuetan edo barne-kudeaketan berrikuntzak egitea kokatzen da hartutako neurrien ranking-ean hirugarren postuan: kontsultatutako enpresen % 59k egin ditu berrikuntzak. Etorkizunean neurri hori modu iraunkorrean mantentzea aurreikusten duten galdetuta ordea, ehunekoa kasu honetan % 32ra arte jaisten da.

Zerbitzu, produktu edo formatu berriak garatzea kokatzen da jarraian: enpresen % 56k garatu du zerbitzu edo produktu berriren bat pandemia garaian; % 60k etorkizunean garatu beharra aurreikusten du.

Enpresen erdia pasatxo izan da (% 52) *langileen prestakuntza hobetzeko neurriak* hartu dituztenak; enpresen erdiak *telelana bultzatu* du eta % 43k *beste eragile batzuekin aliantzak bilatu edo sendotu* ditu.

Azkenik, *hurbileko enpresa hornitzaileetara aldatu* diren enpresak % 19 izan dira.

Al preguntarse sobre las medidas adoptadas por el Covid-19, la medida más expandida o la que han adoptado la mayoría de las empresas es mejorar la presencia y la comunicación digital (el 74 % de las empresas consultadas indican que como medida para hacer frente a la pandemia han mejorado la presencia digital). También al preguntarse sobre las medidas a adoptar en un futuro ha sido el indicado con mayor frecuencia por las empresas (74 %) y también el que más se ha indicado como medida a tener que haber adoptado en el pasado (52 %). En esta consulta del panel también se ha preguntado si esas medidas se han adoptado de forma permanente. Parece ser que la mejora de la presencia digital se comprende como una medida permanente y no solo para hacer frente a la pandemia: el 81 % de las empresas indica que han adoptado esa medida de forma permanente.

La segunda medida más habitual adoptada para hacer frente a la pandemia ha sido la de adaptar los servicios, productos o formatos: el 68 % de las empresas los han adaptado y ven la necesidad de adaptarlos en el futuro (72 %). Además, la mayoría prevé mantener esta medida de forma permanente (71 %).


En el ranking de las medidas adoptadas, en tercera posición se encuentra la de realizar innovaciones en los procesos de trabajo o en la gestión interna: el 59 % de las empresas consultadas ha realizado innovaciones. Aunque al preguntarles si prevén mantener la medida de forma permanente el porcentaje desciende hasta el 32%.

A continuación, se sitúa el desarrollar nuevos servicios, productos o formatos: el 56 % de las empresas han desarrollado un nuevo servicio o producto durante la pandemia; el 60 % prevé desarrollarlo en el futuro.

Poco más de la mitad de las empresas (52 %) han adoptado medidas para mejorar la formación de los y las trabajadoras; la mitad de las empresas ha impulsado el teletrabajo y el 43 % ha buscado o reforzado alianzas con otros agentes.

Por último, el 19 % de las empresas han hecho el cambio a otras empresas proveedoras de proximidad.

Covid-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko neurriak - Medidas para hacer frente a la pandemia por Covid-19 (%)



Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurriak sektoreka aztertuta, Arte eszenikoen eta Musikaren sektorean zerbitzuak, produktuak eta formatuak egokitzea izan da hartutako neurriarik ohikoena kontsultatutako enpresetan: Arte eszenikoen kasuan kontsultatutako enpresen % 77 izan da zerbitzu edo produktuak egokitu dituen eta Musikan % 90.

Ikusizko arteetan eta Liburugintzan presentzia eta komunikazio digitala hobetzeari eman zaio garrantzarik gehien (% 94k eta % 83k aipatu du neurri hori).

Eta Ikus-entzunezkoetan telelana bultzatzea izan da neurriarik ohikoena (enpresen % 67k bultzatu du telelana).

Analizando las medidas para hacer frente al Covid-19 por sectores, en el sector de las Artes escénicas y la Música la medida más frecuente ha sido la de *adaptar los servicios, productos y formatos*: en el caso de las Artes escénicas el 77 % de las empresas han adaptado sus servicios o productos y el 90 % en Música.

En las Artes visuales y Libro ha tomado importancia el *mejorar la presencia y la comunicación digital* (94 % y 83 %).

Y la medida más habitual en Audiovisuales es la de *impulsar el teletrabajo* (el 67 % de las empresas lo ha impulsado).



		Covid-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko neurriak / Medidas para hacer frente a la pandemia por Covid-19 (%)					
		Arte eszenikoak/ Artes escénicas	Ikus-entzu- neezkoak/ Audiovisual	Ikusizko arteak/ Artes visuales	Liburugin- tza/ Libro	Musika/ Música	Guztira/ Total
Telelana bultzatzea	Neurria dagoeneko hartu duzu	61,5	66,7	33,3	33,3	52,6	50,0
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	30,8	58,3	50,0	5,6	31,6	30,9
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	15,4	16,7	33,3	0,0	15,8	13,2
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	30,8	33,3	50,0	11,1	42,1	30,9
Presentzia eta komunikazio digitala hobetzea	Neurria dagoeneko hartu duzu	61,5	50,0	83,3	94,4	73,7	73,5
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	76,9	41,7	83,3	77,8	84,2	73,5
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	61,5	16,7	66,7	55,6	57,9	51,5
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	76,9	41,7	83,3	100,0	89,5	80,9
Hurbileko enpresa hornitzaileetara aldatzea	Neurria dagoeneko hartu duzu	15,4	8,3	0,0	38,9	15,8	19,1
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	15,4	16,7	16,7	16,7	10,5	14,7
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	7,7	8,3	16,7	22,2	0,0	10,3
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	15,4	16,7	16,7	33,3	21,1	22,1
Zerbitzuak, produktuak eta formatuak egokitzea	Neurria dagoeneko hartu duzu	76,9	33,3	66,7	61,1	89,5	67,6
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	84,6	50,0	83,3	50,0	94,7	72,1
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	23,1	16,7	50,0	33,3	42,1	32,4
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	84,6	41,7	50,0	66,7	89,5	70,6
Zerbitzu, produktu eta formatu berriak garatzea	Neurria dagoeneko hartu duzu	61,5	41,7	16,7	50,0	78,9	55,9
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	76,9	33,3	50,0	44,4	84,2	60,3
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	38,5	25,0	33,3	27,8	36,8	32,4
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	38,5	25,0	33,3	27,8	36,8	32,4
Lan-prozesuetan edo barne- kudeaketan berikuntzak egitea	Neurria dagoeneko hartu duzu	46,2	16,7	66,7	72,2	78,9	58,8
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	69,2	25,0	83,3	44,4	89,5	61,8
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	46,2	16,7	66,7	22,2	31,6	32,4
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	46,2	16,7	66,7	22,2	31,6	32,4
Langileen prestakuntza hobetzea	Neurria dagoeneko hartu duzu	38,5	16,7	33,3	72,2	68,4	51,5
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	76,9	33,3	50,0	61,1	78,9	63,2
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	53,8	25,0	33,3	27,8	52,6	39,7
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	69,2	25,0	50,0	61,1	73,7	58,8
Beste eragile batzuekin aliantzak bilatzea edo sendotzea	Neurria dagoeneko hartu duzu	61,5	16,7	66,7	50,0	31,6	42,6
	Etorkizunean neurria hartu beharko duzu	69,2	25,0	83,3	61,1	52,6	55,9
	Neurria iraganean hartu behar zenuen	38,5	25,0	50,0	27,8	21,1	29,4
	Neurria modu iraunkorrean hartu duzu edo hartuko duzu	53,8	16,7	66,7	44,4	52,6	45,6